

Nerabeak sarean

Interneten bizi, irakurri, idatzi

Gaurko nerabe eta gazteek hein handi batean interneten bidez ezagutzen eta tratatzen dute elkar. Mundu birtual paralelo hau benetakoa bezain interesgarria edo interesgarriagoa iruditzen zaie eta behar-beharrezko ondasuntzat jotzen dute Sarea, beren bizitzarako ezinbestekoa.

Eskuarki etxean ikasten dute sarea eta beste hainbat aparatatu digital erabiltzen, baina ez dira gurasoak izaten haien irakasleak horretarako. Intuzioz ikasten dute, batzuetan senide zaharrago baten edo heldu baten imitazioz, eta urte askoan eta maiz asko erabiliz trebatzen dira. Horregatik, ez da harritzekoa baldin familia asko harriduraz eta kezaz ikusten badiutuzte beren seme-alabak hainbeste denbora pasatzen ordenagailuaren aurrean.

Zerk bultzatzen ditu sarea bihurtzera beren jarduera gustukoenetako bat? Zertarako erabiltzen dute gure nerabeek sarea? Horra gurasoen gogoan maiz egoten diren galderak.

Liburuxka honen asmoa da nerabeek teknologia digitala

nola erabiltzen duten erakustea eta gurasoei azaltzea zein diren beren seme-alabek maizenik erabiltzen dituzten ingurune birtualak, beren trebetasun sozialak garatzeko eta azken batean beren nortasuna eraikitzeko erabiltzen dituztenak.

Teknologia berriak erabiltzen jaiotako belaunaldia

Edozein eskola ume gai izaten da Internet eta teknologia berriak trebe erabiltzeko: problemarik gabe nabigatzen du, gauza da informazioa entziklopedia birtual batean bilatzeko, beti eramatzen du zakutoan audio-entzungailu digital bat, argazkiak egiten ditu eta badiaki nola berrukitu eta nola bidali, musika eta filmak deskargatzen ditu, bideo kontsola bat manejatzen du, foro edo chat batean parte hartzen du.

Gure gazteak natibo digitalak dira; jaito ezkerotik bertatik eduki dituzte eskura baliabide digitalak eta modu naturalean erabiltzen dituzte. Haien aldean, helduak etorkin digitalak gara, zenbat ere trebe eta zale garen teknologia hauek erabiltzen.

Eskema batean kontrajar ditzakegu natibo eta etorkin horien ezaugarriak, honako taula honetan:

Natibo digitalak

Formato grafikoak gustukoago dituzte testuzkoak baino

Gai dira aldi berean lan bat baino gehiagotan aritzeko

Talde lana eta sare lana nahiago dute

Kostata kontzentratzen dira luzaro lan bat berean

Denetarikoa informazioa konpartitzen dute

Informazio testu edo pakete txikiarekin ibiltzen dira

Zer egiten dute gure seme-alabek interneten?

Gazteek maizenik aisiarako (on lineko jokoak), afizioetarako (musika, bideoak, argazkiak deskargatu, igo edo jaistea) eta komunikaziorako (sare sozialak, chata edo Messengerra) erabiltzen dute Internet.

Gutxiagotan ikuskatzen dituzte eskolako lanekin lotutako webguneak, entziklopedia birtualak kontsultatu, Encarta edo Wikipedia bezala, eta apunteak edo lan akademikoak bilatu eta kopiaitzeko. Azken tokian, informazio orokorra, gaurko berriak bilatzeko edo kirol edo afizio jakin baten inguruko berriak bilatzeko erabiltzen dute.

Bestelako erabilerak, hala nola, produktuak on line erostea, ez dira maiz izaten haien artean.

Etengabeko komunikazioa: bat-bateko mezu-trukea

Nerabeek adiskideekin eta beren afizio edo gustu berak dituztenekin etengabeko kontaktoan egon beharra sentitzen dute. Internetek bide ematen die neska-mutilen artean, beren berriak, irakurleak, gorri baldin badago, ez dago konektatua eta ezin berehala erantzuten du. Konektatua dagoena

Etorkin digitalak

Testu idatzia gustukoago dute

Bata bestearen ondotik egiten dituzte lanak

Bakar lana nahiago

Gai dira lan bat berean luzeago kontzentratzeko

Kontuz ibiltzen dira informazioa konpartitzeko

Ohituta daude testu luzeak irakurtzen

rekin mintzatzeko, haren ikonoan aldiz klik egin eta aski da.

Messengerrek, idatzeko ez ezik, artxiiboak eta argazkiak eransteko aukera ere ematen die, eta emotikonoak erabiltzeko (emozioak adierazten dituzten sinbolo grafikoak: 😊 😞 😊); bozezko solasaldiak ere izan ditzakete webcam baten bidez eta, jakina, beren kontaktoekin sarean jokatu ere bai, aldi berean hitz egitetik gelditu gabe.

Messengerren aldean posta elektronikoa formalegia iruditzen zaie eta eskolako lanetarako eta helduekin komunikatzeko uzten dute.

INTERNETeko harremanak: sare sozialak

Interneten berriki sortu eta gazteen artean arrakasta eta segimendu handia izan duen fenomeno bat **sare soziala** da, gaur egun, 14-22 urte bitarteko gazte espainoletako %83 erregistraturik dago gutxienez sare sozial batean.

Sare sozial bat webgune bat da, zeinean erabiltzaile erregistratuek edo informazio hartzaileak eta eduki sortzaileak dira. Horri Web 2.0. deritzen. **blogak** edo **wikiak** bezalako aplikazioak dira bilakera horren adibideak.

Blogak webgune mota bat dira edukiak errazki eta agudo argitaratzeko bide ematen dutenak, sareko edozeinek eskuratzeko modukoak. Blog bat zabaltzeko, aurrean kontu bat ireki behar duzu gaur egun dauden debaldeko zerbitzu ugarietako batean (**WordPress** edo **Blogger**, kasu), izena jarri eta ondoren hasi idazten eta irudiak, bideoak eta abar esekitzen. Jeneralean hasierako orrialdean azken argitaratu diren edukiak ageri dira (eduki horiei sarrera edo post ere esaten zaie). Hurrenkera kronologikoa ageri dira, berriekin lehenbizi argitaratu zenera. Beste orri edo blogetara joateko estekak egoten dira eta bisitari edo irakurlearen komentarioak onartzen dira, elkarriketa bat sortuz.

ez denaren eskuetara iritsi eta gaitz egiteko erabil baitaiteke.

Tuenti da neska-mutil gazteen artean hedatuena. Sare horren partaide izateko erabiltzaile erregistratu batek gonbidatu behar zaitu, eta 14 urte baino gehiago izan behar ditu.

Sare batean egoteak aukera ematen dizu agenda bakar batean bilduta edukitzeko adiskide-lagun-ezagun guztiak, argazkiak ikusi eta konpartitzeko, datozen gertakizunen jakinaren gainean egon (gomitak, urtebetetzeak,...) edo bestelako aplikazioak erabiltzeko, hala nola blogak edo bat-bateko mezuak.

Web 2.0 Elkarlan sorkuntza

Internet etengabe bilakatzen ari da baina aldatuta horietako gutxi izan dira hain latzak nola aplikazio interaktiboak agertu eta Interneten sartzea. Haien erabiltzaileak ez dira gehiago subjektu pasiboak edo informazio hartzaileak eta eduki sortzaileak dira. Horri Web 2.0. deritzen. **blogak** edo **wikiak** bezalako aplikazioak dira bilakera horren adibideak.

Blogak webgune mota bat dira edukiak errazki eta agudo argitaratzeko bide ematen dutenak, sareko edozeinek eskuratzeko modukoak. Blog bat zabaltzeko, aurrean kontu bat ireki behar duzu gaur egun dauden debaldeko zerbitzu ugarietako batean (**WordPress** edo **Blogger**, kasu), izena jarri eta ondoren hasi idazten eta irudiak, bideoak eta abar esekitzen. Jeneralean hasierako orrialdean azken argitaratu diren edukiak ageri dira (eduki horiei sarrera edo post ere esaten zaie). Hurrenkera kronologikoa ageri dira, berriekin lehenbizi argitaratu zenera. Beste orri edo blogetara joateko estekak egoten dira eta bisitari edo irakurlearen komentarioak onartzen dira, elkarriketa bat sortuz.

Askotarikoak dira: pertsonalak, kazetaritzakoak, korporatiboak, enpresarialak, hezkuntzakoak eta abar. Baina gehienak blog pertsonalak izaten dira.

Hezkuntzaren arloan **edublogak** sortu dira, hezkuntzaren barneko ikas-irakaskuntza bultzatu eta laguntzeko asmoz sortuak. Tresna ezin baliagarriagoa dira hezkuntzaren eremuan.

Gure nerabeentzat oso akuilu positiboa da blog pertsonalak sortu edo besterenetan parte hartzea, idazkuntza eta sorkuntza tresna oso onak baitira, eta lan horretan autonomia, gaitasun kritiko eta erabakiak hartzeko gaitasuna lantzen baitira.

Wikiak hainbat egilek nabigadorearen bidez elkarlanean editatzen dituzten webguneak dira, denek batera sortu, aldatu edo ezabatu egiten dute denena den testu bat bera. Blog baten antzeko egitura dute baina bide ematen dute edozein pertsonak bere ekarpenak edo aldaketak sartu ditzan. Wikian azken bertsioa iritsi arteko berridazketak guztiak ageri dira. Wiki hitzak bai webgunea bera eta bai hura sortu eta mantentzeko erabiltzen den aplikazioa izendatzen du.

Elkarlaneko entziklopediak wiki horien oso garrantzi eta ospe handiko aplikazioak dira. Genero honen osagaia da **Wikipedia** famatua, mundu osoan barnako milioika erabiltzailearen lan desinteresatuari esker sortutako entziklopedia. Denek beren jakintza aportatu eta ezin baliosagoko tresna bihurtu dute Wikipedia bai ikerketarako eta bai ikasketarako, heldu zein gazteentzat.

Entziklopedia hauek gain, badiara wiki xumeagoak, baina oso baliagarriak informazioa edo ezagupenak komuneean jartzeko, eta eskolako era oso baliagarriak.

Zein da familiaren eginkizuna?

Maiz asko familiek kezka sentitzen dute beren seme-alabek Interneten daudela egiten dutenagatik eta horrek hartzen dien denboragatik. Oro har, esan behar da Internetek ez diela kalte egiten nerabeen famili zein gizarte harremanei, eta ez diela problema larririk sortzen. Hala ere, komeni da familiek interesa har dezaten gazteen jardura horien gainean, ez soilik erabilera okerrak galarazteko (horretarako kontrol edo iragarki informatikoak erabil daitezke), baizik eta lan horretan autonomia, gaitasun kritiko eta erabakiak hartzeko gaitasuna lantzen baitira.

Dudarik gabe familiak kontrolatu behar du interneten osotara ematen duten denbora, ez dadin gehiegizkoa izan, eta ez dadin adiziorik sortu edo bestelako jarduerak kalte har ez dezaten.

Gure seme-alabekin gai horien gainean komunikazio ona lortu eta mantentzeko, ezinbestekoa da guk ikastea eta informazioa jasotzea. Aurreneko lana izan liteke geure seme-alaben ondoan eseritza ordenagailuaren aurrean eta gure dudak eta gure premiak azaltzea. Inork ez diezaguke haien erabil ditzakegun, nola erabili behar ditugun, nola iritsi haietara, zer pauso segitu behar diren erregistratzeko edo nola parte hartu behar den. Zer ikasi handia daukagu teknologia hauek erabiltzen duten trebetasunetik, eta haiek ere badute guregandik zer ikasia interneten erabakiak hartu edo problema konpontzerakoan gaur egun joko-tzeari dagokionez.

Beste aukera bat litzateke Ikastetxeko Guraso elkarteari proposatzea guraso eskolaren bidez ikastaro bat antola dezala gai honen gainean.

Jakin behar dugu, bestalde, nerabe batek jardura desegokiak edo deliktiboak aurkitu ditzaizkeela, eta kontakto ez gomen dagarriak eta estafa elektronikokoak ere bai. Zenbait aholku erraz eta baliagarri eman ditzazkiegu seme-alabei, sarearen erabilera segurua egin dezaten orientabide:

- Ez eman Interneten datu pertsonal arriskutsurik, hala nola pasahitzak, kreditu txartelaren zenbakia, eta abar, handik kalte hartu baitezakete.
- Ez ireki ezezagunen mezu elektronikorik, birusa kutsatzeko ahal diote ordenagailuari.
- Oroitarazi egiezie Sarean norberaren irudi bat esekitzen dutenetik bertatik, edonork handik hartu eta nahi bezala manipulatu eta hedatu dezakeela, haien kontrolik gabe eta haiek direla beren irudiaren jabe bakarrak zirkuantzia guztietan.
- Ez lapurtu inoren nortasuna eta ez utzi besteri zurea lapurtzen ere.
- Salatu berdinaren arteko jazarpen ziberetikoa –ziberbulinga delakoa– edo helbide egindakoa ere bai.
- Beti kritikoa izan Sarean ageri denarekin: ez eman ezer ontzat eta egiazat Interneten ikusi duzuelako, eta beti beste iturri batekin erkatu informazioa.

Gehiago jakiteko

Monsoriu Flor, Mar. *Manual de redes sociales en Internet. Aprende a usar Tuenti, Facebook, Fotolog, Myspace, etc... mejor que tus hijos!*, Madrid, Creaciones Copyright, 2008.

www.pnte.cfnavarra.es/planesdemejora/_csprimaria/familias_cshtml

www.pantallasamigas.net

www.e-legales.net/guia.htm

Miguel Ángel García Andrés
2009ko uztaila